

STEILAS IKASTURTE BERRIAREN AURREAN ETA HEZKUNTZA SISTEMAREN ERRONKAK

Hezkuntza Kontseilariarekin izandako lehenengo bileraren balorazioa eta Departamentuak hartutako lehenengo erabakiak.

Aurreko batean publiko egin bezala, gobernu akordioan agertzen diren puntu gehienekin bat egiten dugu, eta bereziki hezkuntza publikoari bultzada emateko konpromisoarekin. Adosturiko puntuak betetzeko zelatan ibiliko garen konpromisoa berresten dugu.

Kontseilariarekin izan genuen bilera laburra izan zen. Bileran hainbat gai jorratu genituen, eta horien artetik bat nabarmendu nahi dugu: sindikatuok izan beharreko paperaren inguruan, bat egiten baitugu planteamenduan. Sindikatuon eginkizun soila ez da langileen lan baldintzak defendatzea, haratago egin behar dugu; hezkuntza eragileak gara eta gure ekarpenak nola bideratu egituratu behar dugu. Zentzu honetan, azken urteotan hainbat gairen inguruan egindako ekarpen pedagogikoak eta sorturiko materialak eskatu zizkigun Kontseilariak: LOMCE, PAI, Hezkidetzak, Aniztasun Afektibo sexualaren trataera, hezkuntza sistemaren lehen zikloa (0-3), irakasleen prestakuntza... Halaxe egiten segituko dugu, hezkuntza eragile izaten.

Era berean, PAI programak ebaluatzeko berria pozez hartu dugu. Hauxe izan da foro guztietan gure sindikatuak defendatu duen jarrera, eta orain arte baztertu da eskaera hau. Ongi ikusten dugu programa hau ezarrita duten ikastetxeetako hezkuntza komunitatea deitu izana. Hala ere, moratoriaren kudeaketa ez dugu egoki ikusten; atsekabea hartu dugu aurten aurreikusita ziren ikastetxeetan ez baita geldiarazi programaren ezarpena.

LOMCEren aurrean orain arte hartu duen jarrerak ere etsipena sortu digu. Legearen ezarpenaren egutegia mantentzen da, UPNk markatutako egutegia, alegia. PPkoak ez diren Erkidegoetako Departamentu buruen jarrera ezerezean geratu da, eta ez dute jarrera irmorik adosteko ausardia izan legearen benetako moratoria lortzeko. Steilasek legearen moratoriaren beharra planteatu zuen Nafarroako Eskola Kontseiluaren ekaineko azken bilkuran.

Bukatzeko berretsi nahi dugu gure ezinegona departamentuaren hainbat izandepenekin. Oraingo gobernuak helburu duen hezkuntza ereduaren kontrako eragileak izan dira, murrizketa basatiak defendatuz, LOMCE bera ere defendatuz.

Aldaketarako lehentasuneko beharrak eta ekintza sindikala.

Hezkuntza politikaren lehentasuneko gaiak aipatu ditugu: PAIren ebaluazioa eta LOMCEren aurrera zein jarrera erakutsi eta horren arabera nola jokatu.

Steilasek ez du uste PAI programaren bitartez zein ingeles maila lortzen den konparatiba hutsa egitea denik, edota beste gaietan lortutakoa. Horretaz gain, baliabideak ebaluatu beharko lituzkete, plantillak, kostu-onura... Beste behin ere atzerriko hizkuntzak ezagutzearen onura azpimarratu nahi dugu, baina atzerriko hizkuntzez ari gara, ez ingelesaren irakaste soilaz. UPNk ezarri duen eredu arbuatzen dugu. Hizkuntzen trataera integralaz hitz egin behar dugu, eleaniztasunaz, eta nola ez, hizkuntzak irakasteko metodologiaz.

Ikusi ere ikusiko dugu euskararen trataera Nafarroa osoan: nola eskaintzen den, nola bideratzen den eta nolako bitartekoak ezartzen diren euskararen irakaskuntzan. Arauturiko hezkuntzan batetik, eta helduen irakaskuntza publikoan bestetik.

LOMCEri dagokionez, benetan txarrak diren curriculuak ezarrita ere, Nafarroako Gobernuak kalitatearen kontra doazen beste neurriak ez aplikatzea espero dugu, edota hezkuntza komunitatearen parte-hartzea murrizten dutenak. Kudeaketa demokratikoa defendatuko dugu, eta horretarako LOMCEk zuzendaritzari ematen dizkien eskuduntzak gelditu. Era berean, irakaskuntza pribatuari itunak ez zabaltzeko, eta generoaren arabera ikasleak bereizten dituzten ikastetxeak kanpo uzteko.

Eta ausardiaz jokatzeko eskatzen diogu Mendozari egungo egoerari erantzuna emateko. Steilas ez da geldituko Madrildik etor daitekeenaren esperoan, ea noiz aldatzen duten, ez hobekixea den beste lege baten esperoan. Hezkuntza eredu propioa behar dugu, gure beharretara eta helburuetara egokitua. Hori dela eta, hainbat hezkuntza eragile eta talderekin batera elkarlanean segituko dugu bidean aurrera egiteko.

Gobernu akordioan agertzen diren hainbat puntu, **steilasek** urtero aldarrikatu izan dituenak dira:

- **Lanbide Heziketaren hobekuntza.** Euskaraz egiten den eskaintza handitzea, eta Lanbide Heziketa Duala berrikustea.
- **0-3 zikloa.** Kudeaketa publiko eta komuna etapa horretan. Udaletan eman den kudeaketa pribatua bertan bera uztea. Lanean segituko dugu 0-3 Plataforman helburu hori lortu arte. Era berean, 2014ko Dekretua bertan bera utzi behar du gobernu berriak (eta luzatu 2012koa) , ratio txikiagoak izateko, eta doakotasunerantz egiteko.
- **Pertsona helduen prestakuntza.** Hezkuntza eskubidea jaiotzetik dugu, eta bizitzan zehar dela defendatzen dugu. Gauzak honela, enplegurako politikak ere hezkuntza Departamentuaren bitartez egin beharko liriateke, Lanbide Heziketako baliabideak erabiliz, Unibertsitate Publikoarekin uztartuz. Espero dezagun, bada, orain gutxi arte bizi izan dugun egoera aldatuko dutela, eta diru-partidak ez bideratzeko patronalaren eta sindikatu jakin batzuen mesedetan. Zentzu honetan M^a Jose Beaumontekin abuztuan izan genuen

bilera positibo baloratzen dugu. Bilera horretan gure sindikatuak aurreko gobernuak erakutsitako negoziazio asmo eza salatu genuen, eta nabarmendu genuen Mahai Sektorialari negoziazio sena ebatsi zaiola, Mahai orokorrera mugatuz aukera hau. Horren inguruko proposamena luzatu zigun kontseilariak, bai eta Lan Eskaintzari buruzko proposamena ere. Heldu den astean helaraziko diogu planteamendu zabal bat.

Negoiazioa eskatzen dugu itun berria izateko, gure lan baldintzak zehazteko; izan ere, aurreko ituna 2011 urtera artekoa bazen, hainbat gai garatu gabe geratu zen, edota Administrazioak irakurketa murriztailea egin zuen. Orain 2001 urteko Ituna dugu indarrean. Gabeziak nabarmenak dira, eta horretaz baliatu izan da administrazioa irizpide eta arau asko inolako kontsentsurik gabe; eta hau berrikusteko beharra azpimarratzen dugu, langileon eskubideak zapaltzen baitituzte, eta bereziki langile interinoen lan baldintzak. Gainera, ikasleei ematen zaien hezkuntza kalitatean ere ondorioak ditu. Sindikatu guztion aldarrikapenetan dago helburu hau, eta proposamen komuna egiteko ahaleginean egin beharko dugu lan. Aurtengo lehenengo irakasle batzordea gai hau izanen dugu hizpide.

Urgentziazko gai hauei heldu behar diegu ikasturte hasiera honetan:

- **Ratioak.** 2012. urtean %20ko igoera izan izan zen. Atzera egin behar da berehala, eta beharrezkoa zen kasuetan ikasle-taldeak bikoiztu.
- **Ordezkapenak:** azken urteotan inpostutiko irizpideak aldatu (ezkontza edo aitatasunagatiko ordezkapenak ez dira sistematikoki egin, pare bat aste pasatu arte ez dira ordezkapenak burutu) Honek ikastetxeen antolaketan zailatasunak ekarri ditu, eta irakasle lan zama izugarri handitu.
- **Lan Eskaintza Publikoa zehaztu:** zenbat eskaini, non, eta espezialitateak. Gai honek irakasle interinoen artean antsietatea sortzen du eta berehalako erantzuna behar dute. Steilasek oposizioen eredua aldatzeko beharra defendatzen du, eta enpleguaren egonkortasuna erdiesteko bestelako bideak ere bultzatu behar direla uste dugu.

- **Nafarroako Aurrekontuetan partida egokiak beharrei erantzuteko.**

Irailaren akaberan edo urriaren hasieran gobernu berriaren konpromisoak bere isla izan behar du aurrekontuetan. Hitzez baino, ekintzetara pasatzeko aurrekontu egokiak behar ditu hezkuntza politikak.

Legeak, Ebazpenak, Foru Aginduak aldatzeko lana izanen dugu datozen urteetan. Batzuk lehentasunezko kontuak izanen dira; beste batzuk, berriz, hurrengo batean.

Hezkuntza Departamentuak urgentziazko moldaketa egin behar du Nafarroako Eskola Kontseiluan: osaketa, funtzioa,... eta bereziki hezkuntza komunitateari nola eman parte-hartzeko eskubidea. Talde kontsultiboa izatetik benetako talde erabakigarria izaterainoko pausuak eman behar ditugu.

Ikasturtean zehar bestelako aldarrikapenak ere bultzatuko ditugu berriro: irakasleek oporraldi osoa kobratzeko eskubidea, udako hilabeteetara kontratua luzatzeko eskubidea...

Beraz, gogo handiz ekin diogu aurtengo ikasturteari. Berresten dugu, kontseilariari esan bezala, hezkuntza publikoaren hobekuntzan lan egiteko konpromisoa. Proposamenak egiten segituko dugu, eta, hala irizten badugu gure irakurketa kritikoa. Horixe izanen dugu lanabesa.